



Osakidetza

EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES



PRENTSA-OHARRA

LEHENDAKARIAK DIAGNOSTIKOAREN KALITATEA, EMAITZAK ETA PAZIENTEAREN SEGURTASUNA HOBETUKO DITUEN GURUTZETAKO OSPITALEKO ANGIOGRAFO DIGITAL BERRIA BISITATU DU

- Ekipamendu horretan milioi bat eurotik gorako inbertsioa egin da eta Osakidetzan dauden beste batzuei gehitu zaio; Osakidetzak eta Osasun Sailak euskal osasun-sistema publikoaren kalitatea handitzeko daukaten estrategia bateratuan beste pauso bat ematea ekarriko du
- Angiografo digitalak hainbat tratamendu segurtasun handiz egitea ahalbidetzen du, adibidez: IKTUSAK dituzten pazienteei koaguluak kentzea edo aneurismak konpontzea
- Neuroerradiologia Unitateak urtean 400dik gora procedura diagnostiko eta 470etik gora esku-hartze procedura egiten ditu

Iñigo Urkullu lehendakariak, Jon Darpón Osasuneko sailburuarekin eta Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberriarekin batera, Osakidetzak Gurutzetako Unibertsitate Ospitalerako –Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESLaren parte da– erosi duen angiografo berria bisitatu du. Azken teknologiako ekipu berri hori **pauso handi bat da patología neurobaskularrak (iktusak, aneurisma zerebralak...)** diagnostikatzeko eta ondoren inbasio ahalik eta txikieneko ingurune batean tratatzeko lagunza medikoari dagokionez.

Angiografo berria 6. C-ko bloke kirurgikoan sartu da, eta horretarako, 55 m²-ko miaketa-gela berri bat egokitutako behar izan da. Tresna hori erosteko, **Eusko Jaurlaritzak 1.300.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egin du**, merkatuko teknologia aurreratuena baitauka. Iñigo Urkullu lehendakariak honakoa esan du bere bisitan: «**Angiografo digital berriak arretaren arloan jauzi kualitatibo bat ematea dakar eta Gurutzetako Neuroerradiologia Unitatean artatzen diren herritar guztiak izango dira horren**



Osakidetza

EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES



onuradunak». Unitate horrek urtean 400dik gora prozedura diagnostiko egiten ditu, esaterako: garuneko angiografiak edo arteriografia medularrak. Gainera, 470etik gora esku-hartze prozedura egiten ditu, adibidez: arterien barruko iktusen, garuneko aneurismen edo garuneko malformazio arteriobenosoen kasuan.

Ekipoa –dagoeneko martxan dago, urriaren bukaeraz geroztik– angiografo digital biplano bat da, gaur egun erradiologoek eta neuroerradiologoek daukaten tresna aurreratuena, eta «**goragoko maila batean lan egitea dakar, bai irudiaren kalitateari bai pazientearen segurtasunari dagokienez**», Iñigo Urkullu lehendakariaren hitzetan.

Sistema biplano horrek daukan software zehatzari esker, **3Dko irudi oso zehatzekin** lan egin daiteke, **eta hala, beharrezko informazio guztia eduki daiteke, bai tratamenduaren plangintza egiteko bai tratamendua segurtasun handiagoarekin emateko; izan ere, uneoro esku-hartze eremuaren ikuspegia zehatz-mehatza ematen du, hiru dimentsiotan.** Horrela, hainbat tratamendu segurtasun handiz eman daitezke. Horien artean, IKTUSAk dauzkaten pazienteei koaguluak kentzea, aneurismak konpontzea, malformazio arteriobenosoa tratatzea, karotida arteriaren buxadurak... nabamentzen dira.

Sistema berri iraultzaile horrek abantaila oso garrantzitsuak eskaintzen ditu aurreko sistemen aldean. Lehenik eta behin, aztergai dugun eremu anatomikoa azkarrago eta modu osoagoan baloratzeko aukera ematen du eta informazio kopuru bera lortzeko kontraste-dosierdia behar da. Ondorioz, pazientearentzat seguruagoa da eta miaketa egiteko denbora gutxiago behar da. Beste alde batetik, profesionalei dagokienez, profesionalen esposizio-dosia nabarmen murrizteko aukera ematen du. Gainera, prozedura azkarragoa denez, paziente gehiago artatu eta itxaron-zerrendak murriztu ditzakete, arreta azkarragoa eta eraginkorragoa emateko.

Euskadiko osasun-estategiarekin bat

Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren hitzetan, «**ekipamendu berria Osakidetzan dauden beste azpiegitura berri batzuei gehitu zaio eta Osakidetzak eta Osasun Sailak euskal osasun-sistema publikoaren kalitatea handitzeko, eta hala, pazienteentzako**



Osakidetza

EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES



zerbitzua hobetzeko –bereziki, segurtasun klinikoan arreta jarrita– daukaten estrategia bateratuan beste pauso bat ematea ekarriko du».

Pneumologiako, Barne Medikuntzako eta Infekzioetako kontsulta berriak

Angiografo berriaz gain, lehendakariak, Osasuneko sailburuak eta Osakidetzako zuzendari nagusiak lagunduta, Kanpo Konsultetako 2. eraikineko instalazio berriak bisitatu ditu. Han,

Pneumologiako, Barne Medikuntzako eta Infekzioetako kontsulta berriak daude eta urtean 4.000 paziente baino gehiago artatzen dituzte.

Ekipamendu berri horrek **24 kontsulta berri** dauzka, **800dik gora m²-ko azalera** batean banatuta eta **625.000 €-ko inbertsioa** egitea eragin du. Anatomia Patologikoko antzinako pabilioian kokatuta, pazienteen irisgarritasuna hobetu da, kontsulta berriak kalearen mailan daudelako, pazienteentzat eta profesionalentzat erosoagoa da, diagnostikoetarako eta tratamenduetarako espazioa handitu delako eta energia-konsumoa aurreztu egingo da, ekipamendu eraginkorragoa daukalako.

Informazio gehiago: Komunikazio Bulegoa 94 600 6428 - Gabinete.ComunicacionOSIECESI@osakidetza.eus



Osakidetza

EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES



NOTA DE PRENSA

EL LEHENDAKARI VISITA EL NUEVO ANGÍGRAFO DIGITAL DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES QUE MEJORA LA CALIDAD DEL DIAGNÓSTICO, LOS RESULTADOS Y LA SEGURIDAD DEL PACIENTE

- Este equipamiento, que supera el millón de euros de inversión, se suma a otros ya existentes en Osakidetza y supone un paso más en la estrategia conjunta de Osakidetza y el Departamento de Salud para aumentar la calidad del sistema sanitario público vasco
- El Angiógrafo Digital permite diagnosticar y tratar muchas patologías neurovasculares con gran seguridad, como la retirada de coagulos en pacientes con ICTUS o la reparación de aneurismas
- La Unidad de Neuroradiología del Hospital Universitario Cruces realiza al año más de 400 procedimientos diagnósticos y supera los 470 procedimientos intervencionistas

El Lehendakari Iñigo Urkullu junto con el Consejero de Salud, Jon Darpón, y el Director General de Osakidetza, Jon Etxeberria han visitado el nuevo Angiógrafo adquirido por Osakidetza para el Hospital Universitario Cruces perteneciente a la OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces. Este nuevo equipo de última tecnología **representa un gran paso en la ayuda médica para el diagnóstico de las patologías neurovasculares (ictus, aneurismas cerebrales...etc) y su posterior tratamiento en un entorno mínimamente invasivo.**

El nuevo Angiógrafo se ha integrado en el bloque quirúrgico de la 6^a C y, para ello, ha sido necesaria la adecuación de una nueva sala de exploración de 55 m². La adquisición de este instrumento **ha supuesto una inversión para el Gobierno Vasco de más de 1.300.000** ya que cuenta con la tecnología más avanzada del mercado. Tal y como ha señalado en su



Osakidetza

EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES



visita el Lehendakari Iñigo Urkullu “**este nuevo angiógrafo Digital supone un salto cualitativo en la atención de la que se van a beneficiar el conjunto de ciudadanas y**

ciudadanos que son atendidos en la Unidad de Neuroradiología de Cruces”. Esta Unidad realiza al año más de 400 procedimientos diagnósticos, como angiografías cerebrales o arteriografías medulares, y supera los 470 procedimientos intervencionistas, como ictus intraarteriales, aneurismas cerebrales o malformaciones arteriovenosas cerebrales.

El equipo, ya en pleno funcionamiento desde finales de octubre, es un Angiógrafo Digital Biplano, actualmente el instrumento más avanzado con el que cuentan Radiólogos y Neurorradiólogos y que supone “**trabajar en un nivel superior tanto en calidad de imagen como en seguridad para el paciente**” en palabras del Lehendakari Iñigo Urkullu.

Este sistema biplano incluye un software específico que permite trabajar con **imágenes sumamente detalladas en 3D para así poder tener toda la información necesaria, tanto para planificar el tratamiento como para incrementar la seguridad en su ejecución, ya que aporta la visión exacta en todo momento del lugar en el que se está interviniendo en un espacio tridimensional**. De esta forma, se puede acceder con gran seguridad a diversos tratamientos entre los que destacaría la retirada de coagulos en pacientes con ICTUS, la reparación de aneurismas, el tratamiento de malformaciones arteriovenosas, las obstrucciones de arteria de carótida... etc.

Este nuevo y revolucionario sistema, ofrece ventajas muy importantes sobre los sistemas anteriores. En primer lugar, permite una valoración más rápida y completa del área anatómica objeto de estudio y reduce a la mitad la dosis de contraste necesaria para lograr la misma cantidad de información. Esto se traduce en mayor seguridad para el paciente y en una reducción en el tiempo de exploración. Por otro lado, para los y las profesionales, permite disminuir de forma sustancial la dosis de exposición del profesional y al ser un procedimiento más rápido se puede atender a más pacientes y reducir las listas de espera para dar una atención más rápida y eficaz.

Acorde con la estrategia sanitaria de Euskadi



Osakidetza

EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES



En palabras del Lehendakari del Gobierno Vasco “**el nuevo equipamiento se suma a otras nuevas infarestructuras de Osakidetza y supone un paso más en la estrategia conjunta de Osakidetza y el Departamento de Salud para aumentar la calidad del sistema sanitario público vasco, para mejorar el servicio a los y las pacientes, incidiendo especialmente en la seguridad clínica”.**

Nuevas consultas de Neumología, Medicina Interna e Infecciosas

Además del nuevo Angiógrafo, el Lehendakari acompañado por el Consejero de Salud y el Director General de Osakidetza han visitado las nuevas instalaciones del Edificio de Consultas Externas 2 donde se ubican las **nuevas consultas de Neumología, Medicina Interna e Infecciosas** que atienden a **más de 4.000 pacientes al año**.

Este nuevo equipamiento dispone de **24 nuevas consultas** distribuidas sobre una **superficie de más de 800 m2** y ha supuesto una **inversión de 625.000 €**. Con la ocupación del antiguo pabellón de Anatomía Patológica, **se mejora la accesibilidad de los pacientes al estar situadas las nuevas consultas a pie de calle, la comodidad de los pacientes y profesionales al aumentar el espacio destinado a su diagnóstico y tratamiento, y se ahorra en el consumo energético al dotarse de equipamiento más eficaz**.

Más Información: Gabinete de Comunicación 94 600 6428 - Gabinete.ComunicacionOSIEECESI@osakidetza.eus